

Zumadi eskolako sortzaileak omendu dituzte

Amezketako ikastetxeari buruzko 'Ikastolatik Zumadira' liburua aurkeztu diete herritarrei, festa batean // **5**

Danok Danena taldekoak lehen postuetan Euskadikoan

Halterofiliako Euskadiko federazio eta norbanako txapelketak jokatu dituzte Zizurkilen // **7**

Lanbide heziketa izan da protagonista

Eskualdeko lanbide heziketako bost ikastetxeek azoka egin dute Tolosan // **4**



TOLOSA ERBESTEARI LOTUTA

Errepublikaren Aldeko Tolosako Elkartek hainbat hitzaldi antolatu ditu bihartik ostirala bitarte; kultur etxean elkartuko dira eta aurtengoan erbestea izango dute hizketagai, hainbat testigantza bidez // **2**

JOSU ARTUTXA DORRONSORO

Ate Irekiak 2019

Kalitatezko lanbide heziketa

Apirilaren 10ean, 18:00etatik 20:00etara
(Bisita gidatuak ordu erdiro)



Santa Luzia 17 - Tolosa
943 65 11 47
www.tolosaldea.com

V Lan Pertsonek
V ETXAKO
V Kompetentziak
V DUAL
V IKASTEN
V Erasmus
V IKT
V Eleaniztasuna

Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

<https://www.facebook.com/tolosaldea>
<https://twitter.com/TolosaldeaLH>
<https://www.youtube.com/TolosaldeaLH>



Erbesteari buruzko saioak, Errepublikaren Eguna ospatu aurretik

Espainiako gerra amaitu zela 80 urte betetzen direnean, hilaren 14an ospatuko den Errepublikaren Eguna dela eta, ekitaldi ugari antolatu dituzte Tolosako kultur etxean.

Josu Artutxa Dorronsoro

Errepublikaren Aldeko Tolosako Elkarateak, Errepublikaren Egunaren baitan, ekitaldiak antolatu ditu aste honetarako, azken urteetan egin moduan. Aurtengoan, erbestea izango dute ardatz, 80 urte betetzen baitira 36ko gerra amaitu zela, eta urte haietan jende ugari joan zen atzerrira bizitzera. «Bizia salbatzeko joan ziren, bestela hemen fusilatuak izango zirelako», dio Antton Karrera elkarte kideak.

Erbesteak izandako eraginaz, utzitako ondorioez eta, batez ere, eskualdetik atzerrira joandakoez ariko dira, bihartik aurrera, GE-XEL eta Hamaika Bide elkarteekin elkarlanean, eta Espainiako Gobernuako Memoria Historikoa-ren Zuzendaritza Nagusiaren babesarekin antolatutako saioetan. Kultur etxean izango dira eta, besteak beste, erbesteratzen zergatien inguruan ariko dira aurkeztu- en ekitaldian.

Ostegunean, Galo Diez borrokalariaren biloba den Alejandro Diezek, bere aitonaaren pasarteak izango ditu hizpide. Horrez gain, Ana Maria Ruiz elkarte kideak ere emango du hitzaldia. Bere ama Mexikon erbesteratuta zegoela jaio zen bera, eta bertan bizi izandakoak ekarriko ditu gogora. Azkenik, tolosar errepublikano baten eta deserrian bizi izan zen haren familiaren kontakizunak entzuteko aukera izango da. Osti-



Atzo, kultur etxean egin zuten prentsaurrekoan aurkeztu zuten egitaraua. J.A.

ranean, migratzaileen politizazioaz, emakumeek errepublikan izandako tokiaz, eta gaur egungo erbesteaz ariko dira.

Igandean, urtero bezala, Tolosako hilerrian bilduko dira errepublikanoak, fusilatuak izan zirenei lore eskaintza egiteko. Ondoren, Plaza Zaharrera joango dira, udaletxeko balkoia bandera errepublikanoarekin atontzeko. «Duela 80 urte, 400.000 lagun inguru geratu ziren hemen, Erorien Harana eraikitzea behartu, espetxetik igaro, eta gerora fusilatuak izateko. Erbesteratu eta euren bizia salbatu zutenak, 500.000 inguru izan ziren, eta 2.000.000 lagun baino gehiago egon ziren kontzentrazio esparruetan. Ez zaie interesatzen zenbait datu jakitea, eta informazioa zabaltzen da, baina berehala ezkututzen dute. Guk, egia ezagutaraztea nahi dugu». 1930eko hamarkada-

ko lehen urteetan, askatasunera eta giza eskubideak lortzeko bidean, jendeak aurrerapauso handiak eman zituela diote elkarte kideek. «1931n, Estatuko herritarren %48 analfabetoa zen, eta gerora etorri ziren garaipenak; besteak beste, hezkuntzako urratsak eta emakumeen boto eskubidea».

EGITARAUA

Apirilak 10, asteazkena

19:30. Tolosako Foro Errepublikararen aurkezpene eta 80 urte geroago, *Antecedentes del exilio; Il República de 1931 a 1939* eta *La retirada de 1939; el exilio permanente* hitzaldiak.

Apirilak 11, osteguna

19:30. Galo Diez. *Luchador de principio a fin, El exilio femenino en México* eta *Historia de un republicano tolosarra y su familia en el exilio* hitzaldiak.

Apirilak 12, ostirala

19:30. Emigratzaileen politizazioa, *República para las mujeres, Ixaka Lopez Mendizabal: pedagogía y entropía* eta *El exilio actual* hitzaldiak.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Amezketako Arkaitzpe jatetxean, neska bat behar da, zerbitzari lanak egiteko. Interesa dutenek, 676 485 316 telefono zenbakira deitu behar dute.

Udalak adineko pertsonentzako arreta zerbitzua areagotuko du

Maiatzaren 6an jarriko dute abian, Uzturre egoitzan, egunean 3 orduz luzatuz. Ostirala baino lehen eman behar da izena.

J. Artutxa

2009az geroztik, mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden adineko pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua eskaintzen dihardu udalak. Astean bi egunetan eskaintzen da zerbitzua, bakoitzean 3 orduz eta 12-16 pertsonako taldetan jarduerak gauzatuz. Orain arte, 48 pertsonak hartu dute parte zerbitzuan.

Maitzaren 6tik aurrera, ordea, zerbitzua indartuko dute, helburuak mantenduz, eskaintza areagotuz eta Uzturre egoitzan kokatuz. Asteburuan izan ezik, egunero egongo da zabalik zentroa (10:00-13:00). Gainera, arretaz gain, jangela, adinekoen elkartea, ile apaindegia eta podologia zentroa ere jarriko dira erabiltzaileen eskura. Zerbitzu eraberrituan, orotariko informazioa eskainiko zaie, estimulazioa, erreabilitazioa edota trebetasunak, eta kultur jarduera ezberdinak garatzeko aukerarekin.

Parte hartu ahal izateko, erabiltzaileek 70 urte edo gehiago izan beharko dituzte eta men-

dekotasunaren arriskua edo mendekotasun arinaren egoeran egon beharko dute (MBB 0-39 puntu). Horrez gain, zerbitzuak eskaini ditzakeen baliabideetatik kanpo, intentsitate txikiko laguntzaren beharra izatea, eta taldean parte hartzea galarazten dion ezintasunik eta arretarik behar ez izatea eskatzen da.

GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuen sailak ebatzi-ko du pertsonen sarrera, ezaugarriak kontuan izanik. Gainera, irisgarritasun edo garraio arazo- en kasuetan, udalak ezarriko ditu beharrezkoak diren baliabideak, oztopoak gainditzeko. Olatz Peon Ormazabal alkateak nabarmendu du, zerbitzu honek, adineko pertsonen, beren autonomia mailari eusten eta gizarteratzen lagunduko diela. «Beraien bizi kalitatea hobetzea lortuko dugu».

Pasa den astean zabaldu zen izen emateko aukera. Ostirala bitarte luzatuko da, maiatzaren 6an talde berria osatuta egote-ko.

Interesa dutenek, sailarekin jarri behar dute harremanetan, Plaza Zaharreko bulegoetara joz, 943 697 460 telefono zenbakira deituz, edota gizartezerbitzuak@tolosa.eus helbide elektronikora mezua idatziz.



SAN JOSE EGUNEKO SAIOA

Martxoaren 30ean, Tolosako Udal Txistulari Bandak San Jose eguneko urteroko kontzertua eskaini zuen Uzturre egoitzan. Adinekoen gain, kanpotik ere bertaratu zen jendea, eta txistuaren ohiko erreperitorioaz gain, doinu ezagunak ere jo zituzten. «Giro ona» egon zela azpimarratzen dute. ATARIA





HAUTAGAIEN EZTABAIDA

Gipuzkoako Ahaladun Nagusirako hautagaien eta baserritarren arteko topaketa antolatu zuen Enba sindikatuak ostira-lean Zizurkilgo Frisoro Eskolan. Denis Itxasok (PSE-EE), Markel Olanok (EAJ) eta Juan Karlos Izagirrek (EH Bildu) hartu zuten parte. ATARIA



TALDEA AURKEZTU DUTE

Ezkerretik eskuinera Lizartzako EH Bilduko kideak: Gotzone Bengoetxea, Xabino San Sebastian, Itziar Saenz De Ojer, Eneko Arteaga, Iñaki Azpiroz (alkategaia), Jone Zubeldia, Iraitx Olaceta, Aitzol Zubeldia, Bego Balderdi, eta Ima Zubeldia. ATARIA

Zinegotzi banaketan aldaketak egongo dira

2019-2023 legealdian 11 zinegotzi izango dituzte Anoetan, orain baino bi gehiago; Belauntzan aldiz, gaur egun dituztenak baino bi gutxiago izango dituzte, orotara, bost

Jon Miranda

Tolosaldean 214 dira maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan hautatuko diren zinegotziak. 17 eserleku erabakiko dira Tolosan, 13 Amasa-Villabonan eta hamaikana Zizurkilen, Ibarra eta Anoetan. Azken herri horretan, bederatzizinegotzi hautatzen ziren orain arte, baina 2.000 biztanleko kopurua gaindituta, bi zinegotzi gehiago izango dituzte orain.

Bederatzirekin jarraituko dute Alegia, Asteasu, Berastegi eta Iru-rako udaletxeetan eta bosna izango dituzte, berriz, Elduain, Gaztelu, Baliarrain, Orendain, Orexa eta Belauntzan. Hain justu, biztanle kopurua 101 eta 250 bitartekoa den udalerrietan, bost zinegotziak zerrenda irekien bidez hautatuko dira: boto-paper bakarra egongo da eta bertan alderdi desberdinetako hautagaiak agertuko dira. Hautesleak lau hautagai markatu beharko ditu, nahiz eta alderdi desberdinetakoak izan. Lehen aldiz erabiliko dute sistema hori Belauntzan. Tolosaldeko gainerako 13 udalerrietan zazpina zinegotzi erabakiko dira.

UDAL HAUTESKUNDEETAN ZINEGOTZI BANAKETAS

HERRIA	BIZTANLEAK 2018-01-01	ZINEGOTZIAK
Abaltzisketa	320	7
Aduna	469	7
Albiztur	309	7
Alegia	1.726	9
Alkiza	374	7
Altzo	427	7
Amasa-Villabona	5.881	7
Amezketza	939	7
Anoeta	2.034	11(+2)
Asteasu	1.533	9
Baliarrain	137	5
Belauntza	239	5(-2)
Berastegi	1.081	9
Berrobi	602	7
Bidania-Goiatz	508	7
Elduain	239	5
Gaztelu	153	5
Hernialde	313	7
Ibarra	4.172	11
Ikaztegieta	488	7
Irura	1.862	9
Larraul	253	7
Leaburu-Txarama	377	7
Lizartza	602	7
Orendain	218	5
Orexa	123	5
Tolosa	19.525	17
Zizurkil	2.976	11
Guztira		214



'IZAERA ANITZAREN ISPILU'

Herritar hauek osatu dute Tolosako EH Bilduren hautagaitza: 1. Andu Martinez de Rituerto, 2. Kristina Pelaez, 3. Aitana Amondarain, 4. Aitzol Garcia, 5. Olatz Artola, 6. Ander Figerido, 7. Garbiñe Marzol, 8. Xabier Martinez, 9. Ixabel Lakuntza, 10. Javi Arana, 11. Estitxu Kortajarena, 12. Agustin Agote, 13. Izarne Olano, 14. Aitor Agirresarobe, 15. Axun Zubeldia, 16. Mari Mujika, 17. Miren Beñaran, 18. Eriz Lasa, 19. Ainhoa Sagredo, eta 20. Carlos Izaguirre. I.S.



'HERRIAREKIN KONPROMETITUA'

Herritar hauek osatu dute PSE-EEko hautagaitza Tolosan: 1. Jose Mari Villanueva, 2. Jose Ignacio Asensio, 3. Libe Otegi, 4. Cristian Fernandez, 5. Lorena Renedo, 6. Carlos Peña, 7. Aitziber Madariaga, 8. Oscar Renedo, 9. Maria Jose Susin, 10. Oskar Sainz, 11. Itxaso Asensio, 12. Jose Antonio Fernandez, 13. Yolanda Mintegi, 14. Jose Migel Amenabar, 15. Avelina Sanchez, 16. Migel Asenjo, eta 17. Perpetua Santamaria. A. IMAZ



ERRETIRODUNAK FESTAN

Urteroko ohiturari jarraituz, Erretirodunen Eguna ospatu zuten larunbatean Abaltzisketan. Egunari hasiera emateko, elizan bildu ziren meza entzuteko, eta ondoren, ostatuan bazkaldu zuten; guztira, 20 herritar inguru elkartu ziren mahaia-
ren bueltan, kontu zahar eta berriez aritzeko. IRATI SAIZAR



PARRILAREKIN LEHIAN

Berazubiko II. Gastronomikaren barruan, lehen aldiz, elkar-
teen arteko Parrila Lehiaketa egin zuten asteburuan. Zazpi
bikote aritu ziren txuleta prestatzen, eta Berazubi Auzo El-
karteko Iñaki Aiestaran eta Joxe Antonio Telleriak prestatu-
takoari eman zizkioten puntu gehien epaimahaikoek. Biga-
rren postuan Berazubi Elkartea geratu zen eta hirugarren
egitea lortu zuten Arsenal Elkartekoek. ASIER IMAZ

Amaitu da Lanbide Heziketa Azoka

Eskualdeko bost ikastetxeetan egiten dutena plazaratu dute bi egunez, lanbide heziketakoek; jendeak bere dudak eta kezak argitu ditu.



Askoren jakin-mina asetzeko eta kezak argitzeko balio izan du bi egunez ospatu den azokak. A. IMAZ

Asier Imaz Tolosa

Lanbide heziketa eskaintzen du-
ten eskualdeko bost ikastetxeek
hartu dute parte ostiralean eta
larunbatean ospatutako Lanbide
Heziketa Azokan. Tolosako Lan-

bide Ikastolak, Fraisoro eskolak,
Tolosalde Lanbide Heziketa
Institutuak, Peñascal Kooperati-
bak eta Don Bosco ikastetxeak
egiten dutena plazaratu dute bi
egunez. Bertaratu direnek, zuze-
neko azalpenak jaso dituzte ikas-

tetxeetako kideen eskutik, eta
ikusi ahal izan dute zer eta nola
lantzen diren gauza ikastetxe ba-
koitzean. Horrela, ikasketa ho-
rien inguruko errezelo eta uste
okerrak ezabatu eta balioa age-
rian utzi dute.



GAZTE EGUNA, ZORTZIGARRENEZ

Zizurkilgo Txepetxa gazte asanbladak zortzigarren urtez jarraian antolatu du Gazte Eguna. Larunbat goizean ekin zioten eguna ospatzeari eta igande goizaldera arte luzatu zuten festa. Goizean, patata tortilla lehiaketa egin zuten, eta tartean, toka, sokatira, aulki jokoa eta soka saltoa egin zituzten. Txepetxaren jaitsieraren ostean, bazkaltzera eseri ziren, eta arratsaldean, Matraka elektrotxaranga eta Fan&Go taldeek alaitu zuten giroa. IRATI SAIZAR



TXOOOTX

ANIMATU!!

URTARRILAK 19
APIRILAK 27

~ SAGARDOTEGIA ~

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM



KORRIKAREN ALDEKO ARGAZKIA

Klik egin eta Korrikaren aldeko eguna ospatu zuten asteburuan adunarrek. Dozenaka herritar elkartu ziren plazan argazkia ateratzeko. Goizean, III. Pintxo Lehiaketa egin zuten eta sagardoaren laguntzaz dastatu zituzten. Zabalasagardotegian bazkaldu ondoren, erromeria izan zuten. I. URDALLETA



ESKUTIK HELDUTA, PRESTU

Korrikaren aldeko giza katea osatu zuten asteburuan, Altzon, dozenaka herritarrek. Aurten bi kilometro edukitzea lortu nahi dute, bata, udalak erositakoa eta, bestea, herritarrek erositakoa. Girotze Festa horretan, Artea dantza taldearen saioa, jokoak eta hamaiketakoa izan zituzten. I. URDALLETA

Ikastolako sortzaileei omenaldia, liburu eta festa bidez

‘Ikastolatik Zumadira’ liburua aurkeztu zuten, larunbatean, Amezketan; bazkariarekin eman zioten jarraipena festari.

Irati Saizar Artola Amezketan

‘Ikastolatik Zumadira’ liburua bildu dituzte ikastolaren sorreratik gaur egunera arteko oroitzen eta kontu guztiak, eta larunbatean aurkeztu zuten liburua herritarren aurrean. Kultur etxean egindako aurkezpenean, ikasle, irakasle eta gurasoak elkartu ziren.

Behin aurkezpene eginda, ikastolako sortzaileak omentzeko tartea hartu zuten: Alberto Etxeberria, Mari Karmen Zubeldia, Nemesio Etxeberria, Gregorio Alijostes, Jose eta Ani Etxeberria, Batista Galartza, Mattin

Amundarain, Juan Amundarain, Mikel Amundarain, Mari-txu Mugertza, Joxe Sagastume, Eladio Balerdi, Koro Zabala, Izaskun Zubeldia eta Joxepi Saralegik jaso zituzten lore sorta eta liburu bana. Eskolako ikasleek Zumadiko ereserkia abestu zuten eta Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertso-lariak ere hartu zuten tartea bertso batzuk kantatzeko.

Eguerdian, 250 lagun inguru elkartu ziren frontoian bazkari-rako. Atzoko, gaurko eta biharko ikasle, irakasle, guraso eta gainerakoek egun ederra pasa zuten eskolaren aitzakian.



Liburuaren aurkezpenean omenaldia egin zieten ikastolaren sortzaileei. ATARIA

**Atarikideentzat
bi afari bonu ditugu**

ERROMERIA
Apirilaren 13an, Tolosan

**‘Erromeria’
egunean bi
pertsonarentzako
afaria**

Apirilak 13, Larunata
21:00 • Tolosa, Zerkausia.

**Atarikideentzat
bi matrikula ditugu**

**Bai,
nahidut!**
Euskara?

**‘AEK
Euskaltegirako
bi matrikula’
zozketan**

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

24. jardunaldia

Esc. Ciu. Guadalajara–**Lauburu** 1–3
Laskorain–La Union Calatayud 3–1

Sailkapena

1. Alzira 56p
2. San Juan 49p
3. **Lauburu Ibarra** 48p
11. **Laskorain** 28p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu (3)–Santurtzi (14)
Auzoak Zierbena (9)–**Laskorain (11)**

GIPUZKOAKO SENIORRAK, 2. FASEA, LEHEN MULTZOA

2. jardunaldia

Lauburu–Trintxerpe
(bertan behera geratu zen)

Sailkapena

4. **Lauburu Ibarra** 0p

GIPUZKOAKO SENIORRAK, 2. FASEA, BIGARREN MULTZOA

2. jardunaldia

Samaniego Orixe–Anoeta F.T. 0–2

Sailkapena

3. **Anoeta F.T.** 3p
4. **Samaniego Orixe** 0p

Boleibola

EUSKAL LIGA, BIGARREN MAILA

25. jardunaldia

Ibararte–**Tolobolei Bidebide** 3–1

Sailkapena

1. Astillero 23–1
2. Ibararte 20–4
5. **Tolobolei Bidebide** 15–10

Hurrengo jardunaldia

Tolobolei Bidebide (5)

Kotskas Igartza (3)

Futbola

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

29. jardunaldia

Tolosa CF (3)–Zarautz (8) 1–2

Sailkapena

1. Eibar 67p
2. Anaitasuna 64p
3. **Tolosa CF** 57p
4. Amaikak Bat 47p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (3)–Eibar (1)

ERREGIONAL PREFERENTEA, LEHEN MULTZOA

27. jardunaldia

Tolosa CF 'B'–Sto. Tom. Lizeoa 1–0
Billabona KE–Touring 0–2

Sailkapena

1. Euskalduna 71p
2. Touring 61p
3. Astigarragako Mundarro 57p
4. Vasconia 55p
5. **Tolosa CF 'B'** 48p
6. **Billabona KE** 47p

Hurrengo jardunaldia

Dunboa Eguzki (13)–**Tolosa CF 'B' (5)**
Vasconia (4)–**Billabona KE (6)**

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA FASEA

6. jardunaldia

Danena–Ordizia 2–1

Sailkapena

1. Sanpedrotarra 14p
2. Ordizia 9p
3. **Danena** 8p

GORENGO MAILA, KOPA

7. jardunaldia

Intxurre–Euskalduna 2–12

Sailkapena

4. **Intxurre** 9p

Eskubaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

27. jardunaldia

Uharte–**Tolosa CF** 27–26

Sailkapena

1. **Tolosa CF** 46p
2. Anaitasuna 46p
3. Ereintza 35p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (1)–Beti Onak (6)

Saskibaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

23. jardunaldia

Red. M. TAKE 72
LBC Cocinas.com 67

Sailkapena

1. Ulacia Grupo 19–4
5. Hernani Tecnum 15–8
6. **Redline Mekanika Take** 14–9

Hurrengo jardunaldia

Disdira Bitxitegia (2)

Redline Mek. TAKE (6)

GIPUZKOAKO LEHEN MAILA

21. jardunaldia

TAKE–Grupo EME Oiarso 49–47

Sailkapena

7. Añorga Saskibaloia 12–9
8. **TAKE** 9–12

Hurrengo jardunaldia

Antigua–Luberri (2)–**TAKE (8)**

Jon Ander Cabero eta Laiane Arrospide garaile Irurako krosean

Guztira 45 parte hartzaile izan ziren igandean egin zen lasterketa herrikoian.

Irati Urdalleta Irura

Irurako VIII. Kros Herrikoia egin zen igande goizean, Kirol Astearen barruan, eta helduek nahiz haurrek egin zuten lasterka. Jon Ander Cabero ibartarrak eta Laiane Arrospide tolosarrak irabazi zuten proba. Bigarren sailkatu ziren Xabier Agirrezabala zizurkildarra eta Maria Pilar Esnaola ibartarra, eta hirugarren postua, berriz, Irurako Mikel Gabirondorentzat eta Berrobiko Iosune Alberdirentzat izan zen.

Helduen lasterketan, guztira 45 korrikalarik parte hartu zuten, senior eta beterano mailetan banatuta. Irurako Kirol Astearen barruan antolatu zuten krosa eta parte hartzaileek 5.145 metroko ibilbidea egin behar izan zuten. Krosaren bukaeran, sari banake-



Irurako Kros Herrikoian parte hartu zuten zenbait korrikalari. I. URDALLETA

tekin batera, zozketa ere egin zuten parte hartzaileen artean.

Txikieneke ere eduki zuten aukera korrika egiteko. Izan ere, hainbat lasterketa egin ziren ho-

rientzat ere, adinaren arabera banatuta. Hain zuzen ere, aurrebenjaminen bi lasterketa egon ziren eta benjaminen, alebinen eta infantilen bana.

‘Arria V.a’ finalera eta Zabalak etxean ezin aurrera egin

Unai Zabala aizkolari txamarra Urrezko Aizkolariak txapelketan lehiatu da.

Erredakzioa

Asteburuan herri kiroletan hiru hitzordu nagusi izan dira. Goenatxo II.ari omenaldia, alde batetik, eta, bestetik, bi lehia. Azken horietako bat Leaburun jokatu zen igandean. Urrezko aizkolariak aritu ziren banaka, kanporaketan. 19 urtez azpikoe-tan, Unai Zabala txaramarrari galtzea tokatu zitzaion Arria VI.aren aurkako norgehiagokan.

Bestetik, Basque Sports-ek antolatzen duen 5 Kirol lehiaketan, Ibaran bizi den Xabier Orbego-zo *Arria V.a*-k finalerako txarte-



‘Arria V.a’, Tolosako zezen plazan. I.U.

la lortu zuen, Eizmendi harri-jasotzailea lagun zuela. Mikel Larrañaga eta Peñagarikano zituzten aurkariak. Bikote bakoitzak egin beharreko lana, berriz, ondorengoa zen: 100 jasoaldi, 100 kiloko koparekin, harri-jasotzai-

leak; 45 ontzako 12 enbor, aizkolariak; 50 kiloko txingekin 12 plaza, txanda librean; 150 jasoaldi, 18 kiloko ingudearekin, txanda librean, eta 45 ontzako enberrari 10 mozketak trontzarekin, biak batera.

Mikel Larrañaga eta Peña bikain hasi ziren. Lehen lau ariketen ondoren aurretik ziren. Trontzara abantailarekin iritsi ziren, eta besteak hasterako, bi mozketak eginak zituzten. Hor, ordea, Peña bete egin zen, eta lanak amaitu ezinik geratu zen ordura arte aurretik zebilen bikotea. Amaieran, *Arria V.a*-k eta Eizmendik 44 minutu eta 37 segundotan amaitu zituzten 5 Kirolak. Bikote galtzaileak azken bi mozketak ez zituen egin. Garai-pen horri esker finalean egongo dira *Arria V.a* eta Eizmendi.

Gizonetan txapeldun, emakumeetan bigarren

Danok Danena Halterofilia taldekoak, Euskadiko federazio eta norbanako txapelketetan aritu dira.

Erredakzioa

Euskadiko senior eta federazioen arteko txapelketa jokatu zen larunbatean Zizurkilen, Intxaur pilotalekuan. Danok Danena

Halterofilia Taldeko kideak bertan izan ziren Gipuzkoa ordezkatzuz federazioen arteko txapelketan. Gizonezkoetan txapela jantzi zuten eta emakumezkoetan bigarren egin zuten.

Taldeko edo federazioen arteko txapelketan horrela izan ziren emaitzak emakumezkoetan: talde txapelduna, Bizkaia, 623,29 puntu; bigarren postua, Gipuzkoa, 598,40 puntu; eta hirugarren postua, Araba, 221,40 pun-



Danok Danena taldeko pultsulariak, larunbatean, Zizurkilen; eskuinean, Batis Kortajarena prestatzailea. ATARIA

tu. Gizonezkoetan ondorengoak izan ziren lortutako emaitzak: talde txapelduna, Gipuzkoa, 1.522,32 puntu; bigarren postua, Bizkaia, 1.273,21 puntu; eta hirugarren postua, Araba, 1.201,07 puntu.

Banakako lehian, hiru emaku-

mek parte hartu zuten Danok Danena taldetik. Nalu Herranz hirugarrena izan zen, Goretti Amonarriz laugarren, eta Naiara Madridek bederatzigarren bukatu zuen. Gizonezkoetan bost pultsularik parte hartu zuten Danok Danenatik, eta ia lehen postu

guztiak eskuratu zituzten. Mikel Alvarez izan zen garailea, bigarren Igor Sasiain izan zen, Jon Ander Iriartek laugarren postua lortu zuen, Jon Sasiain bosgarren izan zen, eta Alejandro Tomasek seigarren postua lortu zuen.

Sei batelak sartu dira finaletan

Gipuzkoako Txapelketan parte hartu dute TAK klubeko arraunlariek

Imanol Garcia Landa

Tolosaldeko Arraun Klubetik (TAK) «oso pozik» agertu dira Paisai San Pedron jokatu den Gipuzkoako Batel Txapelketan lortutakoarekin. Sei batel aritu dira lehian asteburuan, eta guztiak sartu dira finalean, hau da, lehenengo lauen artean. «Gu horren bila joan ginen, ahal dela sei batelak finalean sartu eta horretaz gozatzeko aukera izatea, eta zo-

rionez lortu genuen», azaldu du Olatz Artola TAKeko komunikazio arduradunak.

Infantil neskak hirugarren geratu ziren, San Juan eta zaurmaiaren atzetik. Infantiletan bigarren izan ziren, Zumaia atzetik segundo batera. Promesa nesketan hirugarren egin zuten, Orio eta San Juanen atzetik. Mutil kadeteetan laugarren izna ziren, Zumaia, Orio eta San Juanen atzetik. Jubenil mutilean laugarren izan ziren, San Juan, Zumaia eta Orioren atzetik. Azkenik, jubencil nesketan hirugarren izan ziren TAK-ekoak, Orio eta Hibaikaren atzetik. «Maila horretan gindozan esperantza



Tolosaldeko Arraun Klubeko kideak, denboraldiaren aurkezpenean. ATARIA

handienarekin bandera lortzeko, Gipuzkoako Ligan erregularrak izan direlako eta bandera

eskuratu zutelako jubencil neskek», esan du Artolak. «Estropada bakar batean jokatzean edo-

zer gertatu daiteke, eta kasu honetan ezin izan zuten irabazi. Ligan ikaragarria da egin dutena, estropada erdiak baino gehiago irabazi dituztelako».

Artolak gaineratu duenez, «TAKen oinarria harrobia da, eta harrobia orain ikusten da, batelatan. Guk lortu dugu maila guztietan ontzi bat finalean sartzea. Belar motzeko lan hori egiten dugu, harrobian jartzen dugu indarra eta oso pozgarria da ikustea fruitua ematen duela maila guztietan».

Hemendik aurrera, arraunlariek Euskadiko Batel Txapelketak izango dute jokoan. Gipuzkoako finalean sartu direnek parte hartzen dute, eta, beraz, sei batel horiek ariko dira lehian. Datorren asteburuan jokatuko da txapelketa hori Legutian.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Arantxa Eskisabel Zunzunegi

(Jexux Otaegiren alarguna)

Apirilaren 4an hil zen 74 urterekin.

-Goian bego-

Gure bihotzetan, oroimenean
eta irrifarretan beti-betiko
MAITE ZAITUGU AMONA!

HAIZEA, ADUR eta MAORE

LEGORRETAN, 2019ko apirilaren 9an



ASTEARTEA, 2019KO APIRILAK 9
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak



ASTEASU ETA SARTAGUDA, ESKUTIK

Udalbiltzak antolatuta, oroimen historikoari buruzko jardunaldia egin zuten larunbatean, Asteasun. Lehenik Asteasuko lubakietara bisita egin zuten Karlos Almorza historialariaren laguntzarekin, eta ondoren, mahai ingurua egin zuten (irudian). Aranzadi elkarteak Javi Bucsek, Sartagudako (Nafarroa) alkate Paolo Albanesek, Maximo Martinez Alargunen Herria Elkarteko kideak eta Txomin Hiriart-Urruty Donibane Garaziko haur errepublikarren kolo-

nietako adituak hartu zuten parte. I. SAIZAR

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus • 107.6 fm •

ASTEARTEA 09

AGENDA

Deialdiak

Irura. Korrika Txikia: 15:10ean aterako dira ikastolatik eta Anoetara joango dira. Bi herrien arteko zubian egingo dute lekuko aldaketa.

Altzo. Loatzo musika eskolako flauta audizioa 18:30ean, Batzarremuño kulturgunean.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Giroa lasaitu ezinik ibiliko da. Goiza nahiko lasaia izango da, non hegomen-debaldeko haizearekin ostar-te batzuk izango diren eta tenperatura maximoa 14-16 gradu bitartean kokatuko den. Baina eguerdian haizeak ipar-mendebaldera egin, zakartu eta eguraldia ezegonkortu egingo da. Tarteka zaparrada batzuk botako ditu eta gainera baliteke ekaitzak jo eta zaparrada gogorragoren bat edo beste botatzea.

Bihar. Antzeko giroa berriz ere. Goizean apenas izango den euririk, nahiz eta, asteartearekin alderatuz hodeitza handiagoa izan. Arratsaldean berriz ere giroa ezegonkortu eta zaparrada batzuk botako ditu. Hala ere, zaparradak ahulagoak eta tartekatutakoak izango dira, beraz litro gutxi pilatuko dira. Haizeak egun osoz ipar-mendebaldetik joko du eta horrekin tenperatura maximoa zertxobait jaitsiko da, eguneko er-

diko orduetan 12-14 gradu bitartean joaz goiaz.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, Aintzane Artolaren errezeta eta Jon Ander Galarragaren Bioaniztasunetik.

11:00-12:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondoko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00-20:30. Kokondo. Oskar

Tenaren musika saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

16:30. Elkarriketap (Odile Kruzeta).

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:15. Ireki Kaxa

(Joseba Bergaretxe politologoa).

23:00. Zer jan.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo Kalea, 20.

Telefono zenbakia: 943 67 60 13.

Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9.

Telefono zenbakia: 943 67 5118.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera



Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57 birdcenter.org

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera



mendexapark.com

688 85 62 83

MENDEXA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.